

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea eskola eta gizarteratze ibilbideetan parte hartzen dutenen garraiorako dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzari

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez eskola eta gizarteratze ibilbideetan parte hartzen dutenen garraiorako dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza aldatzearen kontra —2019ko urriaren 2ko ohiko bilkuran onetsi zuen Udalbatzak—, ordenantza behin betiko onetsita geratu da. Beraz, oso-osorik ematen da argitara, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

ESKOLA ETA GIZARTERATZE IBILBIDEETAN PARTE HARTZEN DUTENEN GARRAIORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Ordenantza honen xedea da eskola eta gizarteratze ibilbideetan parte hartzen dutenen garraiorako dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura egituratzea nahiz finkatzea. Kasu guztietan, dirulaguntza jasotzeko gehienez 150 km-ko distantzia egon behar du eskatzailearen ohiko bizilekuaren eta ikastetxearen artean.

2. artikulua. Udalaren aurrekontuan eskola eta gizarteratze ibilbideetan parte hartzen dutenen garraiorako dirulaguntzak emateko esleitzen den kopurua ekitaldiko gehieneko mugatzat hartuko da.

1. kapitulua: Eskola garraiorako laguntzak

3. artikulua. Urte bakoitzeko urriaren 15ean amaitu ohi da eskaerak aurkezteko epea. Alabaina, 2019an abenduaren 15ean amaituko da.

4. artikulua. Onuradunak: baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izango dira eskola garraiorako laguntzen onuradunak:

- 16 eta 25 urte artean izatea.
- Legutioko udalerrian erroldatuta egotea, eta bertan bizitzea gutxienez duela urtebetetik.

— Honako pertsona hauei ez zaie emango laguntzarik: zigor bidean edo administrazio bidean dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galerarekin zigorturik daudenei, edo horretarako gaitasungabetzen duen legezko debekuren bat dutenei —horren barruan berariatz sartzen dira sexu diskriminazioagatik gertatutako debekuak, betiere otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarenak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera—.

5. artikulua. Udalak laguntza emango dio ikasleari eskola garraiorako, baldin eta egiaztatzen badu ikasturte oso baterako matrikulatu dela (prestakuntza arautuan, batxilergoan edo unibertsitate ikasketetan).

Laguntza bakar bat emango da ikasle bakoitzeko.

6. artikulua. Ez da eskola garraiorako laguntzarik emango ikasleak udalerritik kanpo ikasten badu eta ikasketa horiek Legution egin badaitezke, edo ikasketa horietarako garraioa hitzartuta baldin badago.

7. artikulua. Ikasleak ordaindutako lanen bat egiten baldin badu, Hezkuntza Batzordeak eskubidea izango du eskola garraiorako laguntzak eman ala ez erabakitzeko.

8. artikulua. Eskabideak irizpide hauen arabera aztertuko dira:

- Garraio txartelaren prezioa.
- Familia unitateko kide kopurua eskaera egiten den unean.
- Familia unitatearen guztizko diru sarrerak:

– Laguntza emateko familia errenta hartuko da kontuan, eta honela kalkulatu da: zerga oinarri orokorra + aurrezkiaren zerga oinarria – kuota likidoa. Laguntzaren ehuneko urteroko errenta mugaren arabera erabakiko da:

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOP.	MUGA	LAGUNTZAREN EHUNEKOA
1	14.826 €	ehuneko 20
2	25.308 €	ehuneko 20
3	34.352 €	ehuneko 20
4	40.796 €	ehuneko 25
5	45.598 €	ehuneko 30
6 edo gehiago	49.224 €	ehuneko 40

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOP.	MUGA	LAGUNTZAREN EHUNEKOA
1	12.000 €	ehuneko 40
2	20.000 €	ehuneko 40
3	28.000 €	ehuneko 40
4	33.000 €	ehuneko 45
5	37.000 €	ehuneko 50
6 edo gehiago	40.000 €	ehuneko 50

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOP.	MUGA	LAGUNTZAREN EHUNEKOA
1	10.500 euro.	ehuneko 70
2	16.000 €	ehuneko 70
3	19.000 €	ehuneko 70
4	23.000 €	ehuneko 75
5	27.000 €	ehuneko 80
6 edo gehiago	32.000 €	ehuneko 80

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOP.	MUGA	LAGUNTZAREN EHUNEKOA
1	8.607,12 €	ehuneko 100
2	11.052,24 €	ehuneko 100
3	12.225,96 €	ehuneko 100
4	15.000 €	ehuneko 100
5	19.000 €	ehuneko 100
6 edo gehiago	23.000 €	ehuneko 100

Muga eta ehuneko horiek berrikusi egingo dira, hala badagokio.

Dirulaguntzaren zenbatekoa (Legutioko Udalarena barne) ezin daiteke inoiz izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

9. artikulua. Eskaerak. Aurkeztu beharreko agiriak:

- Ikastetxeko matrikularen ziurtagiri edo frogagiria.
- Eskolako egutegia.
- Azken ekitaldiko errenta aitortpena.
- Bankuko kontuaren zenbakia.

– Zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena eskatzaileak egunean dituela Legutioko Udalarekiko, Administrazio Publikoekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak. - Erroldari buruzko datuak ofizioz egiaztatuko ditu Legutioko Udalak.

– Administrazio bati baino gehiagori laguntzak eskatu bazaizkio, jasotako zenbatekoak jakinarazi beharko zaizkio udalari. Nolanahi ere, eskaera egiteak berekin dakar baimena ematea Legutio Udalari legez egokia den zerga edo ekonomia arloko informazioa eskatzeko.

10. artikulua. Laguntzen ordainketa

Eskatzaileak emandako banku kontura transferentzia eginez ordainduko dira laguntzak.

Dirulaguntza jasotzeko, nahitaezkoa da garraio bidean egindako gastuaren fakturak edo jatorrizko bonuak edo txartelak aurkeztea.

Laguntzak uztailean ordainduko dira. Beraz, ordainagiriak aurkezteko epea urte bakoitzeko maiatzaren 31n amaituko da.

11. artikulua. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek eskola garraiorako laguntza gal dezakete honako kasu hauetan:

- Baja ematen badute udalaren biztanle erroldan.
- Ikasketak bertan behera uzten badituzte.

12. artikulua. Interpretazioa: ordenantza honen interpretazioari buruz sor litezkeen zalantza guztiak alkateak ebaztuko ditu, Legutioko Udaleko Hezkuntza Batzordeak proposatuta.

2. kapitulua: Gizarteratze ibilbideetan parte hartzen dutenentzako laguntzak

13. artikulua. Eskaerak urte osoan zehar aurkeztu ahal izango dira.

14. artikulua. Onuradunak: baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izango dira gizarte ibilbideetarako garraio laguntzen onuradun:

- 18 eta 65 urte artean izatea.
- Legutioko udalerrian erroldatuta egotea, eta benetan han bizitzea gutxienez duela 6 hilabetetik.
- Gizarte bazterketaren diagnostiko soziala izatea. Diagnostiko horrek erakutsi behar du eskatzailea gizarte bazterketako egoeran (arina, apala edo larria) dagoela, edo gizarte bazterketa jasateko arriskuan, diagnostiko hori arautzen duen 385/2013 Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- Gizarteratze prozesu batean sartuta egotea, Legutioko Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuak lagunduta.

– Honako pertsona hauei ez zaie emango laguntzarik: zigor bidean edo administrazio bidean dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galerarekin zigorturik daudenei, edo horretarako gaitasungabetzen duen legezko debekuren bat dutenei —horren barruan berariaz sartzen dira sexu diskriminazioagatik gertatutako debekuak, betiere otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarenak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera—. 15. artikulua. Udalak laguntza emango dio ikasleari garraiorako,

baldin eta egiaztatzen badu prestakuntza ikastaroren batean matrikulatu dela (prestakuntza arautua izan ala ez).

16. artikulua. Kapitulu honetan soilik aplikatzekoa: udalerritik kanpo ikasten duten ikasleek ez ezik, udalerrri barruan ikasten dutenek ere jasoko dituzte garraiorako dirulaguntzak.

17. artikulua. Eskabideak irizpide hauen arabera aztertuko dira:

– Garraio txartelaren prezioa. Joan-etorriak garraio publikoan egin beharko dira.

– Familia unitateko kide kopurua eskaera egiten den unean.

– Ez izatea behar adina baliabide ekonomikorik gizarteratzeko prestakuntzak eragindako garraio gastuak ordaintzeko. Eskatzaileak behar adina baliabiderik ez duela ulertuko da baldin eta bere diru sarrerak txikiagoak badira diru sarrerak bermatzeko errentaren (unitateko kideen arabera legokiekeen errenta) zenbatekoa baino. Etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte larrialdietarako laguntzak ez dira kalkulu ekonomikoan sartzen, izaera finalista dutelako.

2019an, ezingo dira gainditu errenta muga hauek hileko:

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOP.	LAGUNTZAREN EHUNEKOA				
	EHUNEKO 100	EHUNEKO 80	EHUNEKO 60	EHUNEKO 40	EHUNEKO 20
1	8.607,12 €	10.328,54 €	12.049,97 €	13.771,39 €	15.492,82 €
2	11.052,24 €	13.262,69 €	15.473,14 €	17.683,58 €	19.894,03 €
3 edo gehiago	12.225,96 €	14.671,15 €	17.116,34 €	19.561,54 €	22.006,73 €

Muga eta ehuneko horiek urtero berrikusiko dira, diru sarrerak bermatzeko errentarako ezarritako kopuruak eguneratu ahala.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin daiteke inoiz izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

18. artikulua. Eskabideak: udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuan aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin:

– Prestakuntza ikastaroko matrikularen egiaztagiri edo frogagiria.

– Ikastaroko egutegia.

– Hileko diru sarreren frogagiria: kontuan hartuko dira gizarte prestazioetatik datozen sarre-
rak (diru sarrerak bermatzeko errenta, SEPEren langabezia prestazioa eta mantenu pentsioa),
bai eta lan jardueratik sortutako sarrerak ere (kasu horretan, nomina aurkeztu behar da). Es-
katzaileak ez baldin badauka diru sarrerarik edo sarrerak lan murgildutik badatoz, diru sarreren
zinpeko deklarazioa aurkeztuko da.

– Gizarte langilearen txostena; gizarte bazterketaren diagnostiko sozialaren hasierako ba-
lorazioaren emaitza jasoko du txosten horrek, eta azalduko du eskatzailea gizarteratze ibilbide
batean parte hartzen ari dela.

– Bankuko kontuaren zenbakia.

– Zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena eskatzaileak egunean dituela Legutioko Udala-
rekiko, Administrazio Publikoekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak. -
Erroldari buruzko datuak ofizioz egiaztatuko ditu Legutioko Udalak.

– Administrazio bati baino gehiagori laguntzak eskatu bazaizkio, jasotako zenbatekoak ja-
kinarazi beharko zaizkio udalari. Nolanahi ere, eskaera egiteak berekin dakar baimena ematea
Legutio Udalari legez egokia den zerga edo ekonomia arloko informazioa eskatzeko.

19. artikulua. Laguntzen ordainketa.

Eskatzaileak emandako banku kontura transferentzia eginez ordainduko dira laguntzak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa hilero ordainduko da, hilaren hasieran eta aurrerakin moduan. Hilaren bukaeran, garraibidearen faktura edo jatorrizko bonuak edo txartelak aurkeztu behar dira, hurrengo hileko ordainketa egin ahal izateko. Frogagiri horiek aurkezten ez badira, baja emango zaio prestazioari.

Emandako zenbatekoa eta aurkeztutako frogagiriak ez badatoz bat, hurrengo hilean erregularizatuko dira ordainketa gehiago egin behar izanez gero; edo, bestela, prestazioa amaitu bada, eskatzaileak itzuli egin beharko ditu kopuru horiek.

20. artikulua. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek prestakuntzarako garraio laguntza gal dezakete honako kasu hauetan:

- Baja ematen badute udalaren biztanle erroldan.
- Ikasketak bertan behera uzten badituzte, edo gutxienez ehuneko 80ko asistentzia egiaztatzen ez badute.
- Egindako gastuak hilero justifikatzen ez badituzte.

21. artikulua. Interpretazioa: ordenantza honen interpretazioari buruz sor litezkeen zalantza guztiak alkateak ebatziko ditu, Legutioko Udaleko Gizarte Ongizateko Batzordeak proposatuta.

22. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek nahitaez eta lehenbailehen jakinarazi behar dute dirulaguntza galtzea ekar dezakeen edozein aldaketa.

Azken xedapena. ALHAOn behin betiko argitaratu eta hurrengo egunetik izango du indarra ordenantza honek.

Legutio, 2019ko azaroaren 22a

Jarduneko alkatea

IÑAKI LÓPEZ DE BERGARA ASTOLA